



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko uztailaren 4a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Irango erregimenak giza eskubideen aurka egindako ekin-tzak irmoki eta espresuki gaitzesten baitira. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (2. or.).
- 11-25/MOC-00090. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala onets dezan sindikatuekiko akordioan ezarritakoa betetzeko errege lege-dekretu bat, enplegatu publikoei 2024tik ordaintzeke dagoen % 0,5 ordaintzeari dagokionez. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordeak onetsi du (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/QSR-00007. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aitzineko epatzeak, 181/2025 prozedura arruntean (4. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Irango erregimenak giza eskubideen aurka egindako ekintzak irmoki eta espresuki gaitzesten baitira

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2025eko ekainaren 11n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Irango erregimenak giza eskubideen aurka egindako ekintzak irmoki eta espresuki gaitzesten baitira. Hona testua:

"1. Irango erregimenak egindako giza eskubideen urraketak irmoki eta berariaz kondenatzea.

2. Nazioarteko foroetan zigorrak eta presio diplomatikoko neurriak sustatzea Irango errepresioaren eta genero-indarkeriaren arduradunen aurka.

3. Irango emakumeak, ekintzaileak eta giza eskubideen aldeko erakundeak babesteko eta laguntzeko mekanismoak bultzatzea.

4. Nazio Batuen ebazpenak eta Iranen egiturazko erreformak eskatzen dituzten beste erakunde batzuenak babestea, oinarritzko eskubideak errespetatzen direla bermatzeko".

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00090. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala onets dezan sindikatuekiko akordioan ezarritakoa betetzeko errege lege-dekretu bat, enplegatu publikoei 2024tik ordaintzeke dagoen % 0,5 ordaintzeari dagokionez

BARNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Batzordeak 2025eko ekainaren 25ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espai-

niako Gobernua premiatzen baita berehala onets dezan sindikatuekiko akordioan ezarritakoa betetzeko errege lege-dekretu bat, enplegatu publikoei 2024tik ordaintzeke dagoen % 0,5 ordaintzeari dagokionez. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio berehala onets dezan sindikatuekiko akordioan ezarritakoa betetzeko errege lege-dekretu bat, enplegatu publikoei 2024tik ordaintzeke dagoen % 0,5 ordaintzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaiola, modu frogagarrian eta idatziz, 15 eguneko gehieneko epean, berehala onar dezala errege lege-dekretu bat, sindikatuekiko akordioan langile publikoei 2024tik ordaintzeke dagoen % 0,5aren ordaintzari buruz ezarritakoa betetzeko, eta lehenbailehen itxi dezala negoziazio sindikala 2025eko ordainsarien igoerari buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 15 eguneko epean txosten bat eska diezaion Nafarroako Gobernuaren aholkularitza juridikoari, Estatuak ordaintzen ez badu Foru Komunitateak % 0,5 hori ordaintzeko dituen aukerei buruz.

4. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz”.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/QSR-00007. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aitzineko epatzeak, 181/2025 prozedura arruntean

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 30ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak Justizia Administrazioako legelariaren dekretu bidez jakinarazi zuen administrazioarekiko auzi-errekurto bat paratu dela Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2025eko martxoaren 24ko erabakiaren aurka, zeina hamaika administrari-plaza betetzeko deitutako prozesuaren lehiaketa-fasean eman baitzen (11-25/QSR-00003); 2024ko martxoaren 4an emandako 191/2024 Erabakiaren bidez, berriz, ezetsi egin zen lehiaketa-fasearen behin betiko emaitzen aurka Campi3n Larumbe andreak aurkeztutako errekurtoa.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Erabaki honen bidez betetzea prozeduran interesdun diren guztiei egin beharreko epatze-izapidea, eta 9 eguneko epea ematea, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, autoetan pertsonatu daitezzen, baldin eta haien eskubideei begira egokia dela uste badute, agindua eman zuen jurisdikzio-organoaren aitzinean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2025eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias